



ZARAUZKO UDALA

HIZTUN EKOLOGISTAREN DEKALOGOa

EUSKARAK LURRALDE HAUXE BESTERIK EZ DUENEZ, EUSKALDUNOK ARDURA DUGU, ETA AUKERA PAREGABEA ERE BAI, EUSKARA ERABILI ETA BABESTEKO. IZAN GAITEZEN HIZTUN EKOLOGISTA ETA BIZI EUSKARAZI!

1. Zer da Hizkuntzarekiko Jokabide Jasangarria izatea?



Jokabide jasangarria duen hiztunak baloratu egiten du hizkuntza-aniztasuna eta pertsona orok hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea. Ez du bere hizkuntza besteenaren gainetik jartzten.

Bestalde, jatorrizko hizkuntza ikasi eta transmititzeaz gain (gure lurraldean, euskara), jarrera egokiak eta erabilera-ohiturak ere transmititzen ditu.

2. Zein da euskal Hiztun Ekologistaren Oinarrizko Printzipioa?



Euskaraz egiten du euskaraz egin dezakeena. Lehen hitza beti euskaraz egiten du, eta euskaldun agertzen da ezezagunen aurrean, baita aurrean duena kanpotik etorritakoa denean ere. Hortik aurrera, euskara erabiltzen du euskaraz ulertzen duten guztiekin.

3. Zer da euskaraz Bizitzea?

Euskara aukeratzea eguneroko funtzio nagusiak egiteko: etxean, euskara erabiltzea eta seme-alabei euskaraz egitea; euskaraz ikasi eta lan egitea; lehen hitza euskaraz egitea, eta euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz komunikatzea; euskarazko kultura kontsumitzea (antzerki, film, musika, irrati, egunkari, etab.); euskara aukeratzea denda bateko kartelak sortzerakoan, bilera bat deitzerakoan, webgune bat bisitatzerakoan, inprimaki bat betetzerakoan, lantokian gutun bat idazterakoan, Whatsapp-taldeetan mezuak zabaltzerakoan, sare sozialetan...



4. Hizkuntza guztiak berdin sustatu behar al ditu Hiztun Ekologistak?

Ez. Munduan 6.500 hizkuntza inguru daude, eta, guztiek biziraun dezaten, hizkuntzen arteko oreka eta aukera-berdintasuna bultzatu behar du. Horretarako, egoera ahulenean dauden hizkuntzak sustatu behar ditu.

Gurean, euskara eta gaztelania edo frantsesa ez daude egoera berean. Gaztelaniak eta frantsesak askoz hiztun, lurralde eta baliabide gehiago dituzte. Euskarak, aldiz, lurralde haxe besterik ez du. Beraz, guri dagokigu ekosistema honetan euskarari berezko funtzio eta eremuak eskaintzea eta euskaraz bizitz munduko hizkuntza-aniztasunari gure ekarpena egitea.




5. Kanpora joaten garenean, interesatzen al zaizkigu bertako hizkuntzak?



Beste leku batera bidaiatzen dugunean, ingelesa praktikatzeko baliatzen dugu askotan (gaur egungo *lingua franca*). Baina ba al dakigu zein beste hizkuntza hitz egiten diren han? Ba al da hizkuntza gutxituko hiztun? Interesatzen al zaizkigu tokiko hizkuntza gutxituak? Aldatu jarrera. Tokiko hizkuntza gutxitu batean hitz batzuk ikasi eta erabiltzea keinu indartsua da hizkuntza hori biziberritzeko eta hiztunen autoestimua indartzeko. Gainera, herrialde bakoitzean bizipen autentikoagoa izango duzu, bertako hiztunek eskertu egingo dizute, eta hobeto hartuko zaituzte.

6. Errespetu falta al da euskaraz ez dakienari euskaraz egitea?

Lurraldeko berezko hizkuntzan hitz egitea naturala da, ez errespetu falta. Euskaldunok euskaraz egingo diegu lehen hitza ezezagunei, eta, solaskideak euskaraz ez badaki, elkar ulertzeko modua aurkitu beharko dugu. Aukera bat izango da hizkuntza aldatzea, baina garbi utzita euskaldunok ere ahalegin bat egiten ari garela. Elkar ulertzen badugu, berriz, bakoitzak aukeratutako hizkuntzan egin dezakegu; adibidez, batek euskaraz eta besteak gaztelaniaz.



7. Zer egin dezakegu gure inguruan (seme-alabekin, lagunartean...) Hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera positiboa sustatzeko eta euskarari prestigioa emateko?



Hizkuntzei buruz hitz egin behar dugu eta hizkuntzen eta kulturen arteko harremanez. Hizkuntzekiko interesa piztu, eta euskaldun izateari balioa eta prestigioa eman, eta, noski, ahal dugun guztiekin eta eremu guztietan euskaraz egin.

Gauza guztiak hizkuntzaren batean egiten ditugu, eta hizkuntza bat erabiltzeak edo ez erabiltzeak eragina du hizkuntza horren prestigioan, hiztunen autoestimuan, erabileran... eta, azken batean, hizkuntzaren garapen jasangarrian.

8. Zer eskaintzen digu Hizkuntza-ekologiaren Teoriak munduko hiztunei?

Munduko hizkuntza-aniztasuna aberastasuna da gizateriarentzat, zaindu beharreko ondarea; beraz, bioaniztasuna bezala zaindu behar dugu hizkuntza-aniztasuna ere; guztiona da ardura: bai hizkuntza gutxituren bat hitz egiten dugunona, bai hizkuntza nagusiak bakarrik hitz egiten dituztenena. Denok jarri behar dugu gure aletxo lekuko kulturen eta hizkuntzen biziberritzean.



9. Zer egin dezakete Hizkuntza-aniztasunaren alde Hizkuntza gutxitu bat hitz egiten ez dutenek?

Euskaraz ez dakitenek ere gauza asko egin dezakete euskararen eta hizkuntza-aniztasunaren alde: seme-alabak euskarazko hezkuntza ereduan murgildu, euskara eta beste hizkuntza gutxituekin interesatu, euskaldunak hizkuntzaz ez aldarazteko neurriak hartu (itzultzaile automatikoak, lagun-taldean konplizeak bilatu, agurrak euskaraz egin, dakizkiten hitzak erabili, euskara ikasi...).



10. Etorkizunera begira, Zein da euskal Hiztun Ekologistaren erronka nagusia?

Erabilera. Hezkuntza-sistemari eta euskaltegiei esker, asko zabaldu da euskararen ezagutza, eta, batez ere gazteen artean ia denak dira gai euskara ulertzeko. Horrek aukera ematen digu euskaraz gehiagotan aritzeko. Alde horretatik, lan-mundua euskalduntzeak, adibidez, balioa emango lioke herritar horiek urteetan egindako ikasketa-prozesuari, eta euskararen biziberritzean jauzi kualitatiboa emango genuke. Gizarte moduan erronka handia dugu horretan.

